

Green

CAT. A

Ipuina -D

3.906 karaktere

ASKE

Goizeko 10:00-ak ziren eta dagoeneko eskolaz aspertuta nengoen. Estibaliz zen nire Gizarteko irakaslea. Berak beti esaten zidan dena gaizki egiten nuela. Egun hartan bero handia egiten zuen. Ni Kalifornian bizi nintzen. Ez nituen lagun asko, hobeto esateko benetazko lagun bakarra neukan, Karmen, eta oso urrun zegoen, Berlinen hain zuzen ere. Bi astetan behin hitz egiten genuen telefonoz eta bost minutuko elkarrizketak ziren. Olerkiak eta abestiak idazten pasatzen nuen denbora eta batzuetan gauean tabernetan abesten nuen, tabernak ez zeuden bat ere gaizki. Liburuak irakurtzea beste denbora pasa polit bat zen. Ia egunero irakurtzen nuen, bi astean behin liburu berri bat hasten nuen.

Liburuetan irakurtzen nituen abenturak bizi nahi nituen. Zerbait berria probatu eta nire herri aspergarritik joan. Hori lortzea oso zaila izango zen. Nire amak beti esaten zidan zoroa nengoela, baina niri ez zitzaidan axola zoro aske bat izatea lortzen banuen.

Lagun berriak egitea nahiko erraza zen baina nik ez nituen lagun horiek nahi. Haiek hoberenak izatea bilatzen zuten. Hondartzan eta arropa dendetan pasatzen zuten denbora, ez ziren ni bezalakoak, niri motorrean ibiltzea gustatzen zitzaidan herriko motoristekin. Hori zen lortu nahi nuena, errepidean bizitzea, gaueko izarrak handik ikustea, haizeak

nire ile iluna astintzea, benetazko gizonekin egotea, hori zen nik jarraitzen nuen ametsa.

Hainbat alditan ibili nintzen motorrean eta motoristak ondo ezagutzen nituen. Beste inork baino hobeto tratatzen ninduten eta haiek ziren ulertzen zidaten bakarrak. Gehienetan bide berdina egiten genuen. Lau neska eta sei mutil ginen. Ni gazteena nintzen. Besteek hogeita bost eta hogeita hamahiru urte artean zituzten.

Bost egun pasa ziren egun bero horretatik, egun hartan Karmenekin hitz egin nuen. Gauza interesgarriak kontatu zizkidan eta nik betikoa esan nion, berarekin egon nahi nuela. Baina hala ere banekien hamar hilabete falta zirela Karmen Kaliforniara itzultzeko. Maiatzean itzuliko zen.

Hurrengo egunean eskolara joan nintzen. Estibalizen kritikak entzuteko prest nengoen baina berak esan zidan gauza bakarra hau izan zen: " oso ondo egin dituzu jarduerak, Kara. " Irrifar batekin ahoan. Nire begi marroiek ezin zuten sinetsi ikusten zutena. Nik eskerrak eman nizkion eta aulkian eseri nintzen. Eguna ondo zihoan, baina auskalo horrek zenbat iraungo zuen... Egun hartan inoiz baino hobeto sentitzen nintzen. Baina bapatean institutoak su hartu zuen. Denak korrika hasi ziren, ni izan ezik. Niri berdin zitzaidan suarekin kixkaltzea edo handik atera eta deabruaren lorategian jarraitzea bizitzen, horrexegatik ezkutatzea erabaki nuen. Bakarrik nengoen.

Dena kez inguratuta zegoen eta bero izugarria egiten zuen. Begiak istean paradisu ilun batera joan nintzen. Bapatean hots bat entzun nuen. Begiak ireki eta sugar disdiratsuen artean James ikusi nuen. James herriko motorista taldeko gizon bat zen. Azkenengo hiru asteetan bere motor beltzean eraman ninduen taldearekin. Oso harreman ona genuen eta dagoeneko berataz maiteminduta nengoela pentsatzen nuen. James ni baino zazpi urte zaharragoa

zen. Bizar eta ile marroi luzea zeukan. Zerutik eroritako aingeru bat banintz bezala tratatzen ninduen beti.

Bere eskuak nire gerrian jarri zituen eta lur hotzetik altxatu ninduen. Seguru sentitu nintzen bere eskuetan.

Momentu hartan erabaki nuen joateko garaia zela. Egia esateko nik karretera zabalean siniesten nuen. Beste emakume mota bat izateko jaio nintzen, ez zuena ezer, dena nahi zuena. Eta siniesten nuen bihurtu nahi nuen pertsonan, persona aske batean. Esango nuke obsesio puntu batera iritsu nintzela nahi nuen askatasunarekin. Ni bezalako pertsonak aurkitu nituen karretera zabalean. Ez genuen ezer galtzeko, ezer irabazteko, ezer desiatzen genuena, gure bizitzak arte lan bihurtzea besterik.

Eta besteek errepidean utzitako ametsen aztarnak jarraituz abiatu nintzen. Zorua naiz, baina aske naiz.